



1. TXOSTENA

EUSKADI, NAZIOA EUROPAN

**BURUJABETASUNA,
NORTASUNA ETA
HELBURU POLITIKOAK**

IX. BATZAR NAGUSIA - ASAMBLEA GENERAL

1.- HITZAURREA

EAJ-PNV, 1895ean sortu zenez geroztik, Euskal Nazioaren eraikuntza gidatu duen erakunde politikoa izan da, bere printzipio eta baloreei eutsiz, jarrera politikoak, helburuak, estrategiak eta ekintza politikorako egiten dituen proposamenak berrikusten dituena aldizka bere Batzar Nagusietan, horiek lortzeko. IX. Batzar Nagusi honetan gure Alderdiak duen lidergo maila eusteko erronkari heldu nahi diogu, ezagutzen dugun mundua abiadura handian eraldatzen ari diren ordena guztietako aldaketak behar bezala irakurriz. Aldaketa sakonak eta azkarrak politikan, ekonomian, kulturean, gobernantzan, geo-estrategian eta blokeen dinamikan. Erronka globalak dira, hala nola klima-aldaketa, planeta osoko eragileei eragiten diena. Horietako aldaketa bat iraultza digitala litzateke, harremanak izateko eta transmititzeko moduetan eragina dutenak, komunitatea eraikitzeke eta gure arteko elkarbizitzarako moduetan ere. Aldaketa horiek gure jarrerak eta proposamenak moldatzera behartzen gaituzte, eta eragin erabakigarria izango dute gure erakundearen eta politika egiteko moduan.

Abiapuntu horrek behartzen gaitu berrikuntza politikoarekiko konpromiso horizontala hartzera, herrigintzan proiektatzera eta autokonplazentziatik ihes egitera, gure Herriaren zerbitzura lan egiteko bokazio sendoarekin. Egitura, dinamika eta kolektibo sozial berriek aitortza, hurbiltasuna eta harreman proaktiboak eskatzen dituzte. Gainera, egoerak ere behartzen gaitu Alderdi gisa ditugun erantzukizunen eta ekintza instituzionalaren arteko jarrerak argitzera. Horrela, gizartearekin eta haren eragile guztiekin ditugun harremanak zuzenak, gardenak eta aurrez aurrekoak izan beharko dira. Epe laburreko ikuspegi politikoak gauditu nahi ditugu, asmo handiko eta etorkizuneko erabakiak hartu ahal izateko. Hiritargoa inplikatu nahi dugu euskal gizartearen arazoei aurrea hartuko dien politika bat eraikitzeke. Eta Herri eta herritar gisa dagozkigun eskubide zibil, politiko eta sozialekin batera egokiro uztartu nahi ditugu eskubide horiek eurekin dakartzaten betebeharrak.

Txosten honetan jaso nahi ditugu gauden egoerara ekarri gaituzten aurrekariak, eta aldaketa horiek eraikitzen duten testuingurua deskribatzen da. Egoeraren diagnostikoa egiten dugu eta aldaketen interpretazioa proposatzen dugu, euskal "demos"aren ikuspuntutik, handien artean bizirautea baino askoz gehiago lortu nahi baitu. Aldaketa sakonak ematen ari diren testuinguru batean egindako ekarpena izan nahi du, non gaur egun estaturik gabeko nazio askok gure nortasuna eta helburu kolektiboak garatzen jarraitu nahi dugun aro global eta teknologikoan. Munduko nazio guztiek dituzten eskubide eta betebeharrak baldintza berberetan egikaritzeko printzipio ukaezinetik bilatzeko eskubidea dugu.

EAJ-PNVren xede dira euskal nazioaren burujabetza osoa eta bere etorkizuna erabakitzeke eskubidearen instituzionalizazioa, giza eskubideen demokraziaren, askatasunaren, aurrerabide ekonomikoaren eta justizia sozialaren aldeko apustu garbia eginez. Herri eta nazio gisa ditugun nahiak Europar Batasunean eta hura ordezkatzeko duten balioen eta printzipioen barne egiturari jasota daude. Printzipio horietatik eta nazio-eraikuntzaren prozesua garatzen den funtsezko esparruetatik, Europar eskubide osoko nazioa izateko subiranotasunaren eta nortasunaren arloan ditugun helburuak deskribatuko ditugu, baita hori lortzeko ditugun bitartekoak eta bide horretan aurrera egitea ahalbidetuko diguten proposamenak ere. Eta hori egiteko, printzipio horiek ondorengo funtsezko hamar ideiatan oinarrituko ditugu:

- Euskotarrok, komunitate honetako kide sentitzeagatik, gure borondatez eta pertsona aske eta arduratsu gisa ditugun eskubide indibidualak gauzatzean, herri bat osatzen dugu. Herri edo “demos” bat gara, “izateko eskubidearen inguruan dugun adostasunak eta sentimendu eta interes zehatz batzuek bateratzen gaituzten herritarren elkartea”, komunitate nazional baten subjektu politiko izaera duena.
- Herri baten askatasun gosea eta nahi demokratikoak edozein inposaketaren gainetik daude, nahiz eta jarrera hori legetan eta konstituzio edo koituntura mugatzaileetan gauzatu nahi izan. Herri baten erabakitzeko eskubidea, batez ere, printzipio demokratikoa da, eta, beraz, integratzailea eta modernoa; batez ere europarra eta europazalea da; eta gurea bezalako Herri ireki baten nortasuna mundu globalizatu eta interkonektatu batera erabakimenez daraman tresna da, lehiakortasunerako eta garapen ekonomiko eta sozialerako tresnak eskaintzen ditu beretzat eta besteentzat, eta egonkortasun politikoa ematen du, beste Herriekiko harremanak elkarrekiko errespetu demokratikoaren arabera ehuntzeko aukera ematen duen heinean.
- EAJ-PNVk askotan esan duen bezala, eskubide ukaezina da hau. Herri batek gauzatu ahal izango du edo ez; bere historiako une bat edo beste aukeratu ahal izango du eskaera egiteko; plebiszitu bidezko erabaki-egintza bat aukeratu ahal izango du, edo erabaki hori mailaka eta jarraian hartu. Ezin zaio uko egin, ezta eskubide hori indarrez kendu ere.
- Europar Batasunaren sorrera eragin zuten gertaerak dira historian eta geografian gertuen ditugun printzipio horien adierazpen faktikoa. Hasieran, Europar Batasunak Europako aniztasuna aitortu eta errespetatu zuen, bake- eta bizikidetzaren prozesu baten oinarri gisa, eta prozesu horrek borondatezko subiranotasun-lagapen partekatua eskatzen zituen, ukiezintzat jotzen zirenak. Estatu bat Batasunari atxikitzea bera edo Alemaniako Batasuna bezalako prozesuak herrien autodeterminazio-eskubidearen erabilera dira. Batasuna esperientzia arrakastatsua da, printzipio erraz eta demokratikoetan oinarritzen baita: herrien elkarrekiko errespetua eta onarpena, atxikimendu eta elkartze askea, erabakitzeko eskubidea, adostasun askea eta berdinen arteko elkarlan produktiboa. Horregatik, jatorrizko erakundea da, berezko erakundeak dituen, barne-ordenamenduen gainetik dagoen Zuzenbidea sortzen dituen (Batasunaren Zuzenbidearen nagusitasuna). Estatu kideek erakunde horri transferitzen diote, modu itzulgarrian bada ere, beren subiranotasunaren zati bat, gainerako bazkideekin batera egikaritzeko, ondasun eta onura komun baten mesedetan. Esparru horretan, Euskadik subjektu politiko gisa erabat aitortua izatea lortu nahi du.
- XXI. mendean eta Europako federalizazio-prozesu irekian, ez da ideia ona integrazio-prozesu hori garatzeko eraginkorrak ez diren estatu-egiturak mimetikoki klonatzea. Europako integrazio politikoak aldatu egin du subiranotasun klasikoaren paradigma, eta subiranotasun hori estatuz gaindiko sare batean partekatzean oinarritutako eredu bat garatu du, erronka eta arazo komunei heltzeko asmoz.
- Subiranotasunak, neurri batean eraldatu bada ere, bere funtsezko muinari eusten dio, nazioak subjektu politiko gisa parte har dezan subiranotasun hori bateratzeko arloak eta prozedurak negoziatzeko prozesuan. Berrikuntza politikotik gure nazio-nortasuna eta subiranotasun modernoa aitortzeko eta errespetatzeko formulak bultzatu behar ditugu, XXI. mendekoak, demokratikoki adierazitako herri-borondatean duen legitimazioa errespetatzean oinarrituta,

borondate hori ordenamendu juridikoan instituzionalizatzeko: prozesu hori mailakatua izango da, eta Europar Batasunean protagonismo, eragin eta parte-hartze handiagoa lortzeko aukera guztiak baliatu behar ditugu.

- Gure errealitate instituzionalaletako batzuek, hala nola gure gaur egungo erakunde-errealitatearen oinarri juridikoek, eskubide historikoek eta zergetan dugun burujabetzak, burujabetza finantzarioak, gaur egun Ekonomia Itunak eta Ekonomia Hitzarmenak ematen dizkigutenak, erakunde-esparru berriak lortzeko eta garatzeko abiapuntu bat dagoela egiaztatzen dute.
- Europako artikuludun erregelamendu-proposamen bat planteatu dugu, Batasunaren barruan autodeterminazio-eskubidea gauzatu ahal izatea Batasunaren beraren ordenamenduan sar dadin. Bertan defendatzen da, esparru horretan, nazio batek duen erabakitze eskubidea, baita burujabetza partekatzeko formatua eta eskuratu nahi duen esparru politikoa ere. Horregatik, proposamen horrek ez du alde aurretik epaitzen, eta baliozkoa da Europako esparruan autonomia politikotik eskema federal batera edo bere estatua eraikitzea egokitzeko. Une historiko bakoitzean aukeratzen den esparru politiko zehatzetik harago, nazio baten eskubiderik besterenezinena da subjektu politikoa dela aitortua izan dadila eta bere artikulazio politikoa erabakitze gaitasunari eutsi ahal izatea.
- Europa indartsuagoa, demokratikoagoa, herritarrengandik hurbilagoa, subsidiarioagoa, estrategikoki subiranoagoa, berdeagoa eta digitalagoa defendatzen dugu, eta benetako eragile globala izan behar du, kanpo-harremanen eta segurtasunaren arloan Europar Batasunaren balioak eta printzipioak munduan defendatzeko eta proiektatzeko gaitasuna duena, erronka globalei aurre egiteko. Laburbilduz, Europa federal demokratikoa, aurrerabidean dagoena, solidarioa eta bakean bizi dena, Euskadi aitortuko duena eta Euskadik bere ikuspegia eta indarguneak eman diezazkiona.
- Globalizazioaren taulan, gure etorkizuna esparru horretan gobernatzeko, indartsuak izan behar dugu herrialde gisa, erakunde demokratiko sendoekin eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-sare aske eta arduratsuarekin, eta komunitate zentzuarekin. Aitorpen demokratikoa eta tresna politiko eta ekonomikoak behar ditugu, eta horien muga Euskadik ezarriko du une bakoitzean. Euskotarren asmoa ekonomia- eta gizarte-kohesioa, segurtasuna eta aukera-berdintasuna ahalik eta mailarik handienean uztartzea izango da aurrerantzean ere, ahalik eta oparotasun eta askatasun indibidual eta kolektibo handiena lortuz.

2.- AURREKARI HISTORIKOAK

EAJ-PNV duela 129 sortu zen Euskadiren baitan, euskotarrek nazio bateko kide gisa dituzten eskubideak erabat instituzionalizatzeko. Gure patuaren jabe izan nahi dugu, Europako herriak eta mundua bezala. XIX. mendean sortu ginen, foru-erregimenaren eta haren erakunde indarrezko abolizioari erantzuteko, landa-gizarte batetik industria-gizarte batera igaro ginenean, eta horrek asaldura politiko, ekonomiko eta sozialak eragin zituen. Gai horiei erantzuteko gure helburu nagusia euskal nazioari dagozkion eskubideak aitortzea zenez, garaiko modernitatearekin bat egin genuen, Europako beste nazio asko estatu bihurtzen ari ziren garaian.

Orduan eta orain, Euskadik une bakoitzean eskatzen duen borondatearekin sintonizatzea da gure ahalegina, eta proposamenak ikuspegi errealista, pragmatiko batetik planteatzea, pertsonen eta komunitatearen zerbitzura jarritz. Oinarrizko eskubideen errespetutik eta gizarte-humanismotik eraikitako ikuspegi batetik. Horregatik, gure ekarpenak eraldatzaileak eta eraginkorrak izan dira. Aukera eman digute pixkanaka autogobernu eta erakunde mailak berreskuratzeko, hori gauzatzeko. Garapen ekonomikorako eredu propio bat jarri dugu martxan, garapen sozialarekin, sinetsita baikaude ez dagoela gizarte oparorik, ez eta adostasun posible ere, desberdintasunek eta kideen marjinazioak baldintzatutako gizarteetan.

Dinamika horrek eta prozesu berean interesa zuten beste herri batzuekiko harremanek Nazioen Ligan parte hartzeko aukera eman ziguten XX. mendeko bigarren hamarkadan. Balio demokratikoen aldeko apustu irmoak eta oinarrizko eskubideen defentsak eraman gintuzten nazismoari eta faszismoari, diktadura frankistari, ETAren terrorismoari, eta Estatuko aparatuek bultzatutako "gerra zikinari" eta GAL bezalako delitu-adierazpenei aurre egin behar izatera. Jazarpena, fusilatzeak, espetxeratzeak, errepresioa, klandestinitatea eta erbestea pairatu genituen. Joan den mendean Europa suntsitu zuten totalitarismoen biktima izan ginen, eta haiek desagerrarazteko aliatu ziren nazioen ondoan borrokatu ginen. ETak eta bere estrategiarekin bat egiten zutenek inoiz ordezkatu ez duten gizarte baten izenean proiektu politiko totalitario bat indarrez inposatzeko egindako edozein saiakera baztertu eta borrokatu dugu. Estrategia horren bidez, gure herriaren borondateetik sortutako benetako euskal erakundeen izen ona zikindu nahi izan zuten eta beren zilegitasuna kendu. Eta horiek dira euskal gizartearen garatzeko eta bakean eta askatasunean bizi ahal izateko funtsezko autogobernu-tresnak.

Lehen Autonomia Estatutua eta Agirre Lehendakaria buru zuen lehen Eusko Jaurilaritza mugari izan ziren balio horiek sustatzeko eta euskal nazioaren erakundetze prozesua aurrera eramateko. Hasieran, euskal lurrian bertan eta ondoren erbestean egin zen lana. Espainiako gerra zibilaren ondoren, EAJ-PNVko buruak Nazioarteko Ekipo Berrietan sartu ziren (NEI), Europako demokrazia kristauaren hastapenetan, eta gaur egun Europar Batasuna denaren sorreran parte hartu zuten. Gainera, eztabaida haietan, Euskadiren eskubideak errespetatzearen eta aitortzearen alde egiten dugun aldarria aurkeztu genuen; gaur egun "Europako gizarte-eredua" denaren aldeko hautua egin genuen. Horiek dira gaur egun ere gure nortasunaren eta ekintza politikoaren funtsezko ezaugarriak. Hari eutsi behar izateak eraman gintuen sortu genuen Internazionaletik urruntzera, indar erreazionarioak hura kolonizatzen hasi zirenean, erakundea bere sorrerako printzipioetatik urrundu zutenak. Horregatik inplikatu ginen Europako Alderdi Demokrataren sorreran.

Hirurogeiko hamarkadan, gure Alderdiaren zeregina funtsezkoa izan zen gizarte zibilaren antolaketan eta kultura-egiturak modernizatu, hezkuntzakoak animatu eta ekonomia eraldatzen duten mugimenduen antolaketan. Prozesu horrek gure aberriarenganako sentimendu sendoa eta nortasuna indartu zituen. Diktadorea hil zenean, 1977an batzar historikoa egin genuen Iruñean, "Batasuna eta indarra" goiburupean, garai politiko berriari aurre egiteko oinarri estrategikoak eta programatikoak ezarri genituen bertan. Gure funtsezko zereginak izango ziren lehen estatututik sortutako erakundeak berreskuratzeko eta indartzea, eta indarkeria helburu politikoekin erabiltzea legitimatzen zuen estrategia oro irmo baztertua. Horrela sortu ziren Gernikako Estatutua eta Nafarroako Foruaren Hobekuntza. Mendeetako historiaren eta gaurko erakundearen arteko lotura dira gure iraganaren eta

euskal nazioaren eskubideak eguneratzeko borondatearen arteko lotura irudikatzen duten eskubide historikoak.

Konstituzioaren 1978ko erreferendumean abstentzioaren alde egin genuen, Lege Nagusi hori gure eskubide nazionalak erabat instituzionalizatzea eragozten duelako eta Espainiar nazioaren banaezintasuna ezartzen duelako, Euskal Nazioa politikoki egituratzeko beste aukera batzuk marko demokratikotik kanpo utziz. Hala ere, Gernikako estatutuaren alde egin genuen, tamalez oraindik bere osotasunean bete gabe dagoena. Bere lehen artikuluan jasota dago gure nazioaren adierazpenaren zerbitzura dagoen tresna dela. Adierazpen horrek ez du esan nahi gure eskubide historikoei uko egin behar zaienik; izan ere, eskubide horiek erabat berreskuratzea aldarrikatzen dugu, xedapen gehigarrian zehazten den bezala, Nafarroarekin bat egiteko atea irekitzen baitu, bertako herritarrek askatasunez eta demokratikoki hala erabakitzen badute. Azken batean, estatuarekin egindako itun bat da, eta aukera eman digu Ekonomia Ituna eta Ekonomia Hitzarmena, Euskadiko eta Nafarroako osasun-zerbitzuak, Ertzaintza eta Foruzaingoa edo Euskal Irrati Telebista bezalako erakundeak zutik jartzeko eta kudeatzeko. Politika publikoen aukera handia zabaldu dugu, eta gure herrialdea kokatu ahal izan dugu beste nazioek begirunez begiratzeko moduan.

Nazio Batuen 2023/2024 azken txostenean argitaratutako Garapenerako Programaren metodologia aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak 0,936ko Giza Garapenaren Indizea (GGI) lortu du. Zifra horrek gure herrialdearen zati hori herrialdeen sailkapen unibertsalaren 18. zenbakian jartzen du, EUSTATEk landutako datuen arabera. Maila unibertsalean baliozkotutako adierazle horrek berdintasun- edo segurtasun-mailetatik gure hezkuntza-sistemaren kalitateraino haztatzen du. Ziurtatzen du gure mende luzeko ekintza politiko eta instituzionala eraldatzailea eta eraginkorra izan dela.

Gainera, indarkeriaren eta terrorismoaren erabileraren aldeko apustua egiten zuten taldeek, berrogeita hamar urte geroago eta mila hildako baino gehiago eragin ondoren, gure herriaren askatasunen alde lan egiteko bide gradualista eta pragmatikoa onartu dute azkenean, elkarrizketa, bakea eta hitza erabiliz arauen, erakundeen eta balio demokratikoen esparruan. Egin duten akats estrategiko izugarria aitortuta, egin gabe daukate oraindik alderdi etikotik egin beharreko kontakizuna.

Estatutua eta Hobekuntza onartu zirenez geroztik, etengabe aurre egin behar izan diegu Estatuko botereen asmo birzentralizatzaileei, itun politiko hau egitateen bidetik deuseztatzeko egin dituzten ahaleginei. Nafarroako Foruaren Hobekuntzaren kasuan, 1982an gure babesaren ez zuten arren, Estatuarekin negoziatu zutelako sektore abertzaleak baztertuz eta Nafarroako herritarrek beren iritzia eman zezaten egin beharko zen erreferendumera eraman ez zutelako.

Era guztietako oztopoak gaindituz, herritarren babesarekin gidatu dugu Aberria, eta aurre egin diegu nazionalismo espainiarrak indarkeriarekin eta terrorismoarekin lotu nahi izan kanpainei, gure izen ona zikintzeko eginak baitziren. Eusko Legebiltzarrak, 2004ko abenduan, Euskadirako Estatutu Politiko Berria onartu zuen (horren aurrekariak "Izan Erabakitze" txostenean jasota daude), baina, zoritxarrez, Madrilgo Diputatuen Kongresuak atzera bota zuen. Era berean, LORAFNA erreformatzeko proposamen bat egin genuen, Nafarroako Parlamentuan autogobernua garatu eta sakontzeko.

Arestian deskribatu den egoeran, Euskadiren nazio eraikuntzak bultzada estrategiko berri bat behar du, eta ondorengo zereginak inposatzen dizkigu:

- a) Euskotarrekiko kontratu soziala berritzea, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzungo dien ongizate-gizarte berri bat eratzeko.
- b) Gure kultura-nortasun gero eta anitzagoa eta pluralagoa aberastea eta indartzea, bereziki konplexua den testuinguru kulturantzunean, eta, horretarako, Euskadiren berezko nortasunaren transmisio kulturalerako bideak bermatzea.
- c) Erakunde publikoen eta gizartearen arteko harremanean sakontzea, demokratikoki sakontzeko mekanismo instituzionalizatuak ezarriz eta, horrela, euskal komunitate politikoa indartuz.
- d) Estatuarekin Euskal Autonomia Erkidegorako estatus politiko berri bat hitzartzea, euskal nazioaren aintzatespenean eta Euskadiren erabakitzeko eskubidean oinarritua dagoena, eta hura betetzea eragozten duten alde bakarreko erabakien hobekuntza blindatzeko itun berri bat adostea. Estatuarekiko harremanean Ekonomia Itunak eta Nafarroako Hitzarmenak duten alde bikotasun politikoa bermatuko duen akordioa. Estatus berri bat, Euskadi osatzen duten lurraldeei datzekien eskubide historikoen eguneratzean lotua, forutasunaren arabera, herritarren borondate politiko eta demokratikoan legitimatua. Estatus berri bat, euskal autogobernuaren botere-funtsa zabalduko duena, euskal proiektu komuna osatzen duten pertsonen eskubide politiko, kultural, linguistiko, sozial eta ekonomikoak bermatzeko. Berdin Ipar Euskadin, Euskal hiriguneen Elkargoa indartzeko lana egitea eta erakunde honentzat eskuduntza gehiago eta botere sozial eta ekonomiko zabalagoak lortzeko.

3.- GAUR EGUNGO EGOERA

Globalizazioaren ondorioak

Aro berri baten atarian gaude, globalizazio-prozesu betean, krisi globalak kudeatu beharrean gaudela. Aldaketa oso sakonak dira, eta gure ekoizpen-sistema birmoldatu, nazioartera zabaldu eta aniztasun berri bat onartu eta integratzera behartu gaituzte. Gure lurraldeetan inoiz bizi izan den gizarterik askotarikoenerantz goaz, herritarren jatorriari dagokionez. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eragindako iraultza eta adimen artifizialaren bilakaera dira, hein handi batean, eraldaketa horien kausa, eta bizkortu egiten dituzte, aldaketak inoiz ez bezalako abiaduran gerta daitezten. Garrantzitsuenen artean daude:

- Geopolitika: Eragile zahar eta berrien artean baliabide naturalak eskuratzeko ematen ari den lehia, bakoitzak bere posizioari eutsi diezaion edo batzuek besteek bazter ditzaten. Ezagutu ditugun arauetan oinarritutako nazioarteko harremanei mehatxu egiten dien zerbait. Fenomeno horrek ekarri ditu Errusiak Ukrainar lurraldean aldarrikatzen duena edo Palestinako herriak Gazako Zerrendan jasaten duen egoera onartezina bezalako inbasioak. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik ezagutu ez diren pertsonen mugimenduak ere sortzen dituzte.
- Gobernantza globala: Korporazio pribatu jakin batzuek, batez ere telekomunikazioen, teknologia berrien eta finantza-korporazioen esparruan jarduten dutenek, hartu duten dimentsioak nazioz gaindiko botere-egiturak sortu ditu, eta horiei ezin diegu erantzun gaur

egungo nazioarteko gobernantza-sistemekin. Arautze eta erregulazio ezak eragina du birbanaketa-mekanismoetan, aukera-berdintasunean, klase ertainen dimentsioan eta posizionamenduan eta demokraziaren kalitatean.

- Eskala: 8.000 milioi pertsona baino gehiago bizi dira gaur egun India edo Txina bezalako potentzia handi bakoitzean 1.400 milioi pertsona bizi diren mundu batean. EBk 450 milioi biztanle ditu. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da nazioen arteko indarrak batzea eta eskala egokiak bilatzea, "herrirka global" deritzon horrek planteatzen dituen erronkei erantzuteko. Nazioek eta estatuek, banaka eta modu isolatuan, ez dute gaitasun eraginkorrik gure gizartearen erronka nagusi askori aurre egiteko. Euskadik bere lekua bilatu behar du Europar Batasunean, eta erantzukizunak, eskubideak eta betebeharrak partekatu, Europako erabaki-prozesuetan eta Europar Batasuneko politika publikoetan parte hartuz.
- Zientzia, Teknologia, Ezagutza eta klima-aldaketa: Industria tradizional askoren etorkizunari eragiten dio, eta jarduera, lanbide eta ezagutza-arlo berriak sortzen laguntzen du. Gure produkzio-sistema sakon eraldatzera behartzen gaitu. Era berean, gure jardueren jasangarritasuna, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa planetan bizitza bideragarria izateko gakoa dela eta bakean bizitzeko oinarria. Era berean, gure hezkuntza-sistema sakon berrikustera behartzen gaitu.
- Agenda politiko berri bat: agenda politikoa gizartean sortzen diren errealitateetara egokitu behar da, joko-eremu berri bat ezartzen dute eta eskaera berriak planteatzen dituzte, politikak erantzun bat eman behar diena. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: gizartea aro digitalean sartzea, indarrean dagoen globalizazio-ereduak ekonomian, politikan eta gizartean duen eragina, krisi ekologikoa eta garapen iraunkorragoa behar izatea. Gainera, genero-berdintasunari dagokion eskakizun atzeraezina, errespetu eta berdintasun baloreak kultura-aniztasuna eta identitateak maila guztietan gero eta handiagoak direla onartzea, edo trantsizio demografikoa. Gure herriko pertsonen ahaleginaren, ahalegin ekonomiko eta sozialaren eta eztabaida politikoaren zati handi bat gai horien ingurukoa da, eta haiei buruz dugun ikuspegi ideologikoak baldintzatuta dago.

Demokrazia liberalaren krisia

Egoera horretan, krisian dauden demokrazia liberalek kontratu sozial berri bat zehazteko erronka garrantzitsuari aurre egin behar diote. Sistema demokratikoen errendimendu-krisia bizi dute, mundu osoan gertatzen ari diren eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen ondorioz. Nazioz gaindiko eragile berriak sortzen ari dira, herrialdeen bizitzan eragina dutenak, eta nazioarteko ordena bat, non herrialde garrantzitsuek eredu autokratiko eta totalitarioen alde egiten ari diren. Populismoaren gorakada ere arestian esandako krisiaren ondorio nagusia da, herritarrek politika hautemateko, interpretatzeko eta baloratzeko duten moduan eragiten duen mugimendua. Era berean, kezka handiz ikusten dugu estatu askotako mapa poligrafikoan gero eta agerikoagoak diren joera horiek Europako proiektu politikoaren sorrerako balioei aurre egiten hasi direla.

Honaino ekarri gaituen kontratu sozialaren oinarri den kolektibitate kontzeptuaren aurrean, gero eta sakonagoak diren desberdintasunek indibidualismoa eta ziurgabetasuna sustatzen dituzte. Horrela, komunitatearekin eta espazio politikoarekin dugun lotura, jasotako zerbitzuen pertzepzio

indibidualista batetik egituratzen da. Euskadiren eta Europar Batasunaren etorkizunak joera hori irauli eta demokrazia indartu behar dute. Lehenasunezko zeregina da hori. Gaur inoiz baino garrantzitsuagoa da euskal erakunde-sistema indartzea, gizarte antolatuarekin sare kolaboratiboak ezartzea. Komunitate politikoa indartu egiten da herritarrek gai publikoetan duten inplikazioa sustatuz, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Guztiok ahalegina egin behar dugu kultura demokratikoa nagusitu dadin populismoaren aurrean eta mundua irtenbiderik gabeko kalezulo batera eramaten duten ikuspegi totalitarioen aurrean.

Ezagutza eta informazioa transmititzeko moduan gertatzen diren aldaketek egiten dute gainerakoa. Gaur egun, gizartearen zati handi batek partzialki eta zatika ikusten du errealitatea. Sare sozialek gobernatzen dituzten algoritmoek eta baieztapen-joerek eztabaida publikoa polarizatzen laguntzen dute, informazio faltsuetan, sentsazionalismoan eta hutsalkerian oinarritutako negozio-ereduak sortzen dituzte. Horrela, politikari zilegitasuna kentzen zaio, elkarrizketa eta akordioak zailtzen dira, eta jarrera autoritarioak sustatzen dira, konponbideak eskaini beharrean arazo horiek areagotuko dituztenak. Baliteke zatiketak zapuztea eta gizartea polarizatzeak hauteskunde-etekinak ematea epe laburrean, baina gizartea atomizatzen du, gobernaezin bihurtzen du eta komunitate politikoaren oinarriak suntsitzen ditu.

Eraldaketa politikoak Euskadin

Euskal gizartea ez dago agenda politikoari eragiten dioten eraldaketa-prozesu horietatik kanpo, eta, bereziki, naziogintzarako estrategia definitzeari dagokionez. Gizarte indibidualistagoa eta polarizatuagoa gara, kontsumo-ohitura berriak hartzen dituenak, bizitza publikoan bere partaidetza murriztuz, beste gizarte aurreratu batzuen bide beretik. Sozializazio-mekanismoetan eman diren aldaketa sakonek eragiten digute, lehenago, esate baterako, familiaren inguruan garatzen zirelarik. Parte-hartze politiko eta sozialaren mailak aldatu eta ahuldu egiten dira gizarte konplexuetan. Agenda politikoa aldatu egiten da, gai globalek eraginda: zahartzea, krisi demografikoa (bereziki kezkarriak Euskadin), immigrazioa, klima-aldaketa eta digitalizazioa. Horiek guztiak eragina dute estatu-nazioaren posizioan eta bere gaitasunetan. Era berean, gure erakundeen politikaren eta ekintzaren gaitasunei eta benetako irismenari buruzko ziurgabetasunak ere eragiten digu. Instituzionalizazio demokratikoaren fasea eta pertsona askoren bizitzarako ekarri zituen hobekuntza nabarmenak gairatuta, ekintza kolektiboaren pertzepzioa, kapital soziala eta komunitatearen zentzua murriztu egin dira. Gero eta pertsona gehiago sentitzen dira eragile politikoetatik eta, oro har, politikatik urrun. Kanpoko eta urruneko zerbait bezala ikusten da, koiunturaren menpe dauden loturekin. Hautesleen leialtasuna gero eta txikiagoa da.

Bestalde, sare sozialen egungo eztabaidak, hedabide tradizionalen zeregina eta beren sinesgarritasuna krisira eraman dituenak, eztabaida publikoaren kalitatea sinplifikatzen eta pobretzen du, eta komunikazio politikoa eta publikoa eraldatu ditu. Egoera horrek zaildu egiten du epe luzerako pentsamendua eta akordio handiak lortzeko aukera. Egoera ekonomiko eta politikoarekin uztartuta, hausnarketa sakona egitera behartzen gaituzten egiturazko baldintzak.

Indarkeria eta terrorismoa gairatuta ditugu, baina indarkeria babestu zuten eragile politikoek hausnarketa etikoa egin behar dute beren ibilbideari buruz. Gure bizikidetzan, gure garapen sozial eta

ekonomikoan eta gure asmo politikoetan eragin zuten narriadura aitortu behar dute, baita gure demokraziaren kalitatearentzat eragin den pobretzea ere.

1978ko erregimen konstituzionalak eta ondoren Espainian izan diren gobernuek ez dute konpondu hainbat naziok osatzen duten Estatuaren errealitatea. Estatu espainiarrean, birzentralizazio-prozesu bat bizitzen ari gara, diktaduraren ondoren lortutako itunak eta adostasunak iraultzen ari dena, gure autogobernua zuzenbide-estatuaren printzipioa eta demokrazia bera ahulduz.

Pandemiaren ondorioz, gainera, Estatuako politikak euskal agenda bigarren mailara eraman zuen. Estatu mailako alderdiek euskal gaiak beren interesetarako erabiltzen dituzte, eta birzentralizazioa indar handiz sustatzen ari dira. Akordio puntualak gorabehera, oinarrizko legeriak eta lege-dekretuek, Konstituzio Auzitegiaren epaiek eta Estatuak autonomia-erkidegoen eskumen-corpusa nahita kontuan hartu gabe Europako arauen aplikazioak eta transposizioak gure autogobernua ahultzen jarraitzen dute; joera hori gurekin zerikusirik ez duten hiru faktorek indartzen dute:

- Eskuinaren eta eskuin muturraren mehatxua boterean, iritzi publikoa mobilizatzeko erabiltzen dena.
- Estatuaren funtsezko erakundearen eta demokraziaren kalitatearen ahultzea, batez ere botere-banaketari eta botere judizialaren politizazioari dagokienez.
- Gizarte-haserrearen kudeaketa kalkulatu, Espainiako gobernuaren agenda nagusiki bideratuta dago eskumen-gatazkak ezkutatzeko neurri sozialak abian jartzera, estatu barruan den nazio aniztasunaren aitortza atzeratuz.

Mekanismo gisa erabiltzen duen mezua da garrantzitsuena neurriak direla, ez norik hartzen dituen. Horrela, argi eta garbi inbaditzen dira euskal eskumen-eremuak, objektiboki gure autogobernurako gaitasuna murrizten dutenak eta konpondu nahi zituzten arazoak larriagotzen dituztenak.

Eraldaketa sozialak Euskadin

Euskadik, beste herrialde aurreratu batzuek bezala, ongizate-estatuaren krisi bati aurre egin behar dio, bereziki sistema soziosanitarioan, segurtasunean eta hezkuntzan, biztanleriaren zahartze handia ematen ari den egoera batean. Egitura-elementu horiek 2008ko finantza-krisiarekin, Covid-19aren pandemiarekin, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkekin eta Asiako erraldoien eta gorabidean dauden –edo dagoeneko azaleratu diren– beste herrialde batzuen eraginarekin egin dute talka industriaren eta enpleguaren eremuan.

Egoera horri aurre egiteko ahalegina handia izan da, baina konponbideak eguneroko akatsak zuzentzea baino gehiago eskatzen du. Kontratu soziala birdefinitu behar dugu, ongizate-estatu eta haren prestazioak birdiseinatu, hura finantzatzen duen produkzio-sistema modernizatu, eta krisi demografikoari eta belaunaldien arteko elkartasunari behin betiko heldu. Genero berdintasuna zeharkako eta lehiakortasuneko faktore bihurtu behar da. Iraunkortasunak izan behar du Garapen Iraunkorraren printzipioetan oinarritutako garapen-paradigma berri baterako gida.

Azken batean, gure aurrekoek gainditu zituzten neurri bereko erronka bati heldu behar diogu orain. Alderdiaren sorreratik dugun ideiarekin arabera erantzun behar dugu: "Izan zirelako, gara. Garelako, izango dira". Egungo egoeran aplikatu behar dugu orduko espiritu berritzaile eta ekintzaile bera, gure

sortzaileek EAJ-PNVren sorreran izan zuten erabakitasun eta gogo bera, erbesteratzeari aurre egitean edo diktaduraren ondoren berreskuratu genuen Herriak pairatzen zituen krisien aurka borrokatzeko orduan erakutsi zituztenak. 129 urteko ibilbidearen ondoren, bere horretan gordetzen ditugu gure balore eta printzipioak, aberri gintza- gose berbera daukagu eta Herria hobetu dugu, bai eta aberri gintzarako tresnak ere.

4.- HELBURU POLITIKOAK

EAJ-PNVk esandako proposamen hauek aurkezten ditu, uste osoa baitugu desiragarri eta egingarri direla eta gure ordezkariak behar besteko gaitasuna dutela proposamenok buru argiz eta sen onez bideratzeko. Praktikan jartzeko, ondorengoak beharko ditugu:

- Munduak bizi dituen korrante handi eta biziak planteatzen dituzten erronkak argi eta garbi hautematea, onartzea eta erantzun egokia ematea. Horiek dira nazio gisa gure etorkizuna eratzen ari direnak eta eratuko dutenak, gizarte osoan ilusioa piztuz, hiritargoa mugiaraziz eta konprometituz.
- Gizarteak eskatzen duena apaltasunez, arretaz eta adi entzun, errealitatea onartzeko, gure mugak zein diren argi izateko eta behar den guztia egingarri bihurtzeko.
- Euskal gizartearen interes orokorrak defendatuko dituzten helburu eta estrategietan oinarritutako buruzagitza politikoa, herritarren arazoak konpontzeko eta beren bizi kalitatea hobetzeko.

1. Euskadin demokrazia sendotzea

Euskal gizarte gero eta askotarikoa eta konplexuagoa da, hala dira ere sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko moduak. Gizarteak konfiantza du demokrazian eta printzipio eta mekanismoetan, gatazkak bake bidez konpontzeko. Konfiantza du erakunde publikoetan ordezkari politiko izateko, baina gizarte-, kultura- edo kirol-arloko mugimendu-, elkarte- eta erakunde-sare zabal eta askotarikoaren bidez ere adierazten da. Gure herriaren kapital soziala aberasten eta espazio publikoa indartzen duten kolektiboak dira horiek. Gizartearen eta bere sareen bizitasuna etorkizuna eraldatzeko eta eraikitze duen gaitasunaren adierazgarri da. Euskadik gizarte zibil indartsu eta aktiboa behar du.

- Gure eredia elkarlanetik eraikitzea da, ez gatazkatik. Gure konpromisoa da Euskadirentzat funtsezkoak diren gaietan adostasun zabalak gidatzea eta ehuntzea. EAJ-PNVk herritarrekiko elkarlan zuzenaren bidea estutu eta indartuko du, Euskal Administrazio Publikoen, gizarte zibilaren eta gizarte antolatuaren arteko elkarlaneko herrigintza prozesuen bidez. Hori lortzeko, demokrazia eta sistema politikoa biziberritu eta agenda propioa garatu behar dugu. Populismotik eta demokrazia ahultzen duen edozein prozesutatik aldentuz. Politika biziberritzeak komunitate politikoa indartzen du, aldi berean herritarrak bultzatzen eta babesten dituen sare komunitarioa ere. Gure energia guztia jarriko dugu demokrazia sakontzen eta kultura demokratikoa defendatzen, hedatzen eta harekiko konpromisoan.
- Gidaritza ezin da gauzatu pertsoneri entzun gabe, haien ezagutzari balioa aitortu gabe eta gai publikoetan parte hartzeko nahiari bide eman gabe. Entzute aktiboa apaltasunez eta aitortza

eginez baino ezin da egin, proposamen eraldatzaileak identifikatzea ahalbidetzen duten jarrerarekin heldu behar zaio. Hauxe da ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa indartzeko abiapunturik onena, batasuna ahalbidetzeko tresna gisa, proiektu komun batean borondatez eta konbentziturata parte hartzea. Batasun deitzen duten baldintzarik gabeko eta ñabardurarik gabeko atxikimendua baino kontzeptu emankorragoa.

- Uko egin behar diogu boladan dagoen itxurazko polarizazioari. Adostasunak sortzea, batasuna sustatzea, gure helburuetako bat baldin bada, jarrera hori erabat bateraezina da polarizazioarekin. Populismoek liskarra sustatzen dute, sinesmenek eta metahizkuntzek blindaturiko komunitateak sortzen dituzten errealitate alternatiboak eraikitzen dituzte, eta aurkakotasunez definitzeko joera dute. Tamaina nahikoa hartzen badute, botere instituzionala eskuratzeko aukera izango dute, baina demokrazia eta askatasunak ezabatuz. Hori ez da izan, ez da, eta ez da izango EAJ-PNV bezalako erakunde baten aukera. Bateraezina da gure sustrai humanistarekin eta oinarrizko eskubideekiko dugun konpromisoarekin. Sozialki kohesionatua, ekonomikoki oparoa eta kulturalki irekia izango den komunitatea eraikitzea eragozten du, eta hori bai datorrela guztion ongiaren definizioarekin.

Azken batean, bat egin behar dugu mehatxu horiei aurre egiteko ahalegin guztiekin, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Estatuan, bai Europar Batasunean bertan; izan ere, esparru horietan, gero eta babes handiagoa duten muturreko indar politikoak demokraziaren kalitatea higitzen ari dira, eta zalantzan jartzen dituzte gure gizartearen funtsezko balioak.

2. Euskadi nazio dela aitortzea

Nazioarteko zuzenbideak aitortzen du herri guztiek eskubide berberak dituztela. Badago euskal nazio-nortasun bat eta hura babesten eta adierazten duen herri bat, ezagutzeko eta aitortzeko modukoak biak. Baita errealitate instituzional bat ere, esandako "demos" hori izan badela egiaztatzen duena. Errealitate ezberdinak diren arren, Gernikako Autonomia Estatutua, Nafarroako Hobekuntza edo Iparraldeko Elkargoa errealitate horren adierazgarri dira. Hiru errealitate politiko-administratiboetatik abiatuta, eta eratu daitezkeen gehiengoaren borondate kolektiboak errespetatuz, eta kontuan hartuta enklabeen kasua eta, bereziki, Trebiñuren kasua, Euskadin erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzeko helburuari eusten diogu, bi estatu inplikatzeko dituen itun berri baten bidez. Itun hori Europako ordenamenduan jaso behar da, eta alde bikotasunaren bidez bermatu behar da.

Hori lortzeko, bi estatutan antolatutako borondate politikoa aldatu behar da, bai erabakitzeko eskubidea aitortzeko, bai eskubide hori gauzatzea hitzartzeko. Izan ere, gure asmoek talka egiten dute gaur egun ematen ari den birzentralizazio-prozesu argiarekin, eta horrek arriskuan jartzen ditu adostasun politikoak, eta eraso egiten dio orain arte lortutako autogobernu-mailari. Ez da onargarria Euskadi subjektu politiko dela ukatzea, ezta joko politiko demokratikoaren arauak Estatuko erakunde zentralek alde bakarretik urratu edo berrinterpretatu ahal izatea ere. Estatua, izatez, nazio anitza da, eta Europako legeek eta kultura politikoak onartu egin behar dute hori.

EAJ-PNVk akordio bat bultzatzeko konpromisoa hartu du, Espainiako eta Frantziako estatuek eta Erkidegoko erakundeek beren marko legalak, instituzionalak eta kultura politikoa errealitate nazioanitz horretara egokitzeke. Horrela bakarrik integratuko da Batasunaren leloa, "Aniztasunean

bat eginda", Europar Batasunaren sorrera eta funtsa bere kideen atxikimendu askea da, elkarrekiko errespetuan et aitortzan oinarritutako bake-tresna gisa sortu zena. Hori eraikitzeko, nazio-aniztasuna eta haren adierazpen instituzionalak, politikoak eta kulturalak aitortu eta errespetatzea da abiapuntua. Europaren identitate eta subiranotasun berri bat eraikitzeak integrazio-ahalegina egitera eta inplikaturako nazioen eta estatuen autodeterminazio-eskubidearen adierazpen garbiak diren erabakiak hartzea behartzen du. Akordiotik sortzen den eta herriak berretsita legitimatzen den ariketa. Horregatik, lehentasunezko helburua da gure erakundeak Europako esparru barruan egotea eta haien eginkizuna eta eskumenak aitortzea. Itunak eta Hitzarmenak, edo EAJ-PNVk sustatu zuen Europako Argitasun Legeak, besteak beste, irtenbide berritzaileak ekar diezazkiekete Batasunaren arazo handi batzuei, hala nola Europako ogasun komun bat sortzeko edo herritarrengandik hurbilago dagoen gobernantza bat praktikatzeko. Ondo funtzionatu duen Europar Batasuna behar dugu. Horren barruan, gure nortasunari eusteko eta eskaintzeko, gure herritarren eskubideak bermatzeko, burujabetza gure borondatez partekatzen eta eragiten diguten erabakietan erabakitzen gaitasunarekin eta gure nortasun propioarekin parte hartzeko gure espazioa eta mekanismoak bilatuko ditugu.

3. Euskadi Europar Batasunaren indartzea, gure autogobernu eta burujabetzarako funtsezko gakoak

Europar Batasunaren sorrera eta funtsa bere kideen atxikimendu askea da, elkarrekiko errespetuan et aitortzan oinarritutako bake-tresna gisa sortu zena. Hori eraikitzeko, nazio-aniztasuna eta haren adierazpen instituzionalak, politikoak eta kulturalak aitortu eta errespetatzea da abiapuntua. Europaren identitate eta subiranotasun berri bat eraikitzeak integrazio-ahalegina egitera eta inplikaturako nazioen eta estatuen autodeterminazio-eskubidearen adierazpen garbiak diren erabakiak hartzea behartzen du. Akordiotik sortzen den eta herriak berretsita legitimatzen den ariketa. Horregatik, lehentasunezko helburua da gure erakundeak Europako esparru barruan egotea eta haien eginkizuna eta eskumenak aitortzea. Itunak eta Hitzarmenak, edo EAJ-PNVk sustatu zuen Europako Argitasun Legeak, besteak beste, irtenbide berritzaileak ekar diezazkiekete Batasunaren arazo handi batzuei, hala nola Europako ogasun komun bat sortzeko edo herritarrengandik hurbilago dagoen gobernantza bat praktikatzeko. Ondo funtzionatu duen Europar Batasuna behar dugu. Horren barruan, gure nortasunari eusteko eta eskaintzeko, gure herritarren eskubideak bermatzeko, burujabetza gure borondatez partekatzen eta eragiten diguten erabakietan erabakitzen gaitasunarekin eta gure nortasun propioarekin parte hartzeko gure espazioa eta mekanismoak bilatuko ditugu.

4. Testuinguru anitz, konplexu eta askotarikoan euskal nortasuna sendotzea

Euskal nortasuna inoiz baino irekiagoa eta askotarikoagoa da gaur egun. Euskotar asko beste herrialde batzuetatik datoze, beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzte, nortasun kolektibo desberdinak dituzte. Nazioaren kontzeptu klasikoek mundu globaleko aniztasun hori onartu behar dute, gure inguruko nazioetan gertatzen den modu berean. Aniztasun hori jasotzen eta integratzen jarraitu behar dugula onartu behar dugu. Euskadi eta nazio gisa bizirik irauteko, ezinbestekoa da etorkinak integratzea, eta haien gizarte- eta harrera-premiei behar bezala erantzutea. Euskadik ere izan behar du harrera-, integrazio- eta lankidetzaren herrialde. Eta horretarako behar ditugu tresna politiko eta ekonomiko egokiak.

Aniztasun hori onartzeak ez du esan nahi gure sustairiak ahaztu behar ditugunik, ezta horiei uko egin behar diegunik ere. Horregatik, prozesu bat bultzatu behar dugu, ondare propioari prestigioa eman eta hari eusteko, eta kohesio-tresna gisa proposatzeko. Konpromiso horren lehen lerroan agertzen da gure nortasunaren gakoetako bat, euskara. Euskararen erabilera soziala biziberritzea eta gure hizkuntza integrazio-bide bihurtzea ezinbestekoa da Europako aniztasunaren parte den kultura-ondarea kontserbatzeko. Euskara guztiona da. Euskararen biziberritzeak adostasuna eskatzen du, bai eta euskal nortasuna eta erakunde publikoek eta gizarteak partekatzen dituzten politikak errespetatzea ere. Baina baita Euskadin bizi garen guztion ondare bihurtzeko eta aro digitalean txertatzeko ere.

Ondare horretan, gainera, egituratzen gaituzten eta gizarte osoari zerbitzua ematen dioten erakundeetatik sortzen diren tradizioak txertatu behar ditugu. Baita bizi garen esparru soziopolitiko eta gure ongizatearen oinarri den errealtate ekonomikoa ere, hori ere gure Herriaren kultura-adierazpen bereizgarria baita. Nortasun-ezaugarri horretan, gizarte-ekonomiak, erantzukizun sozial korporatiboak, ekintzailetzaren prestigioak, esfortzuak, ondo egindako lanak edo enpresa inklusiboari buruzko aho bateko akordio politikoak ekosistema egokia sortzen dute garapen sozialeko gure garapen ekonomikoa erdurako. Herrialde gisa dugun kaudimenaren oinarriak dira. Ezaugarri horiek ezagun egiten gaituzte, *Basque Country* marka erakargarri egiten dute eta kanpo aldean prestigioa ematen digute. Dimentsio horiek guztiak gure nazioaren eta nortasunaren kontzeptuetan txertatuko ditugu.

5. Euskal gizartearekin kontratu sozial berri bat garatzea ongizatearen gizartearen oreka berrezartzeko

Izaki sozialak gara. Pertsonok ingurune bat behar dugu, garatzeko, elkarren artean komunikatzeko (partekatu) eta gure potentzialik handiena lortzeko gizarte bat. Gizarte-politiken katalogo zabal bat kudeatzeko prestazioen eta zerbitzuen katalogo bat eskaintzea baino askoz gehiago eskatzen du. Arima eman behar zaie, gizatasuna. Horrela eraikitzen da esparru abegikor, afektibo eta ulerkor bat, non eskubideak eta betebeharrak uztartzen ditugun. Bertan, tolerantziaren totemaren orde, zeinak onartuak direnen eta onartzen dutenen arteko ezberdintasuna esan nahi duen, aniztasunaren printzipioa ezarriko dugu, aniztasuna erabat onartzea dakarrena.

Politika publikoen kudeaketaren erantzukizun instituzionalak, maizegi, erronka atzeraezinei modu erreaktiboan erantzutera behartu gaitu, eta plangintza eta estrategia zigortu ditu, kudeaketa publikoaren dimentsio humanistari eraginez. Proiektu totalitarioak polarizatu eta bultzatzeko agenda politiko berria gauzatzen saiatzen direnen aurrean, guk humanismoa hobetsiko dugu, pertsonak ekintza politikoaren erdigunean jartzeko.

5.- EAJ-PNV-K NAZIO NORTASUNEAN ETA AUTOGOBERNUAN DUEN ESTRATEGIAREN PRINTZIPIOAK

Testuinguru horretan, EAJ-PNVk egingo du nazioago, herriago eta gizarteago egingo gaituen politikaren alde. Esparru politiko zehatz bat aldarrikatzen dugu, Europar Batasunarena, euskal subiranotasuna mundu globalean jarduteko gai den egitura batekin bat egitea ahalbidetuko diguna. Aniztasuna errespetatuz eta onartuz, kideen atxikimendu askean, elkartasunean eta balio demokratikoen konpromisoan oinarritutako Europar Batasun zabaldua da euskotarrek proiektu honi beren gaitasunak, eskumenak, erakundeak eta nazio-nortasuna gehitzeko lekuri onena.

Mundu gero eta handiago eta interkonektatuago batean, ehunka milioi pertsona biltzen dituzten merkatu eta esparru politikoekin, giza eskalako eremuak inoiz baino beharrezkoagoak dira. Komunitate fidagarri eta kohesionatu batekin lotzen gaituen nortasun nazionalak beroa eta babes eskaintzen ditu. Hurbileko kudeaketa, hizkuntza bera hitz egiten duten agintariak, kale berberetatik

ibiltzen dira, eta herritar gehien-gehienek dituzten arazoak bizi dituztenak; funtsezkoak dira pertsonen eta erakundeen arteko beharrezko loturari eusteko.

Euskal nazioari zentzua eman zion, ematen dion eta emango dion printzipioari borondateak gehitzen jarraitzeko erronka dugu: euskal herritarrak garela, eta izaten jarraitu nahi dugula sinetsita dagoen gizartea, eta mundu globalean identitate hori ikusaraztea. Aintzatespena eta errespetua erreklamatzeko ditugu, eta integrazio-prozesu bat bultzatzeko dugu, gure atxikimendu aske, kontziente eta koherentean oinarritua, eremu globalean jarduteko aukera ematen diguten egituretan edozein erakunde subiranori heldu dakiokkeen eskalarekin bat datorrena. Europako proiektu bateratuari ekarpena egin nahi diogu, bai EBko erakundeetan zuzenean parte hartuz, bai Bruselan defendatuko duen Estatuaren jarreran eraginez, bakarrik zein mugaz haraindiko hainbat sare eta foroen bidez.

Hori lortzeko dugun estrategiak ondorengo printzipioak ditu oinarri:

- Negoiazioa eta Ituna. Nazio aitortza eta Euskadik erabakitzeko duen eskubidea instituzionalizatzea, Euskadiren eta Estatuaren arteko itunaren eta negoziazioaren bidez, alde bikotasun eraginkorra bermatzen duen eta forutasunean oinarritzen den sistema baten bidez, akordio hori alde bakartasunaren eta asmo zentralizatzaileen aurrean blindatuko duena.
- Gure nazioa Europar Batasunean integratzea. Gure nazio errealitatea aitortuko duten Protokoloak jasotzea eta bere tratatuen erreforma bultzatzea, hurbiltasunaren aldeko ekarpenen eta Europaren etorkizunerako konferentzian zehaztu zen estatu azpiko egituren aitortzearen argitan.
- Entzute aktiboan, gardentasunean eta parte-hartzean oinarritutako governantza modernoa, elkarlanean. Ezagutza soziala atzemateko, mobilizatzeko eta eraginkor egiteko, eta gure bizikidetzaren hobetzeko parte-hartze eta tresna bihurtuz.
- Ekintza politiko pragmatiko eta solidarioa, euskal gizartea etorkizuneko ikuspegiarekin egituratzen jarraituko duena.
- Identitate demokratiko, moderno, ireki eta europazalea, gure berezitasun kultural, sozial eta ekonomikoen bektorea barne hartuko duena, bai eta erkidego politiko nazionala garen aldetik daukagun gaitasuna ere.
- Autogobernuaren kontakizun humanista eta soziala, aniztasunean, pluraltasunaren errespetuan eta aitortzean eta giza eskubideen bermean oinarritua.

Batasunaren baitan egin nahi dugu, hura identifikatzen eta zentzua ematen dioten erakunde bidez, bizirik nahi dugun eta bultzatu nahi dugun hizkuntza propioaren bidez, Europako aniztasuna aberasten duen gure kulturaren bidez, eta eredu soziala duen garapen ekonomikoko eredu baten bidez. Komunitate zibiko sendoa, eraginkor, fidagarri, zuzen eta bideragarri baten ezaugarriak dira, gure gaitasunen eta gaitasunen adierazpena.

6.- PROPOSAMENAK ETA JARDUERAK

Entzute aktiboaren printzipioaren arabera, gure eskaintza politikoa sendotzera begira proposamenok indartzeak eskatzen du:

- Txosten honetan jasotzen diren edukiak herritarrekin partekatzea eta kontraste lana egitea eta beren ekarpenak jasotzea,
- Entzute prozesuaren ondorioak laburbilduko dituen agiria egitea eta prozesuaren emaitzak zabaltzea.

Jarduerak planteatzen ditugu ondorengo sei arlo nagusitan:

1. Burujabetza

- I. Berrikuntza politikoa oinarri harturik, gaur egun burujabetza zer den eta zer esan nahi duen birdefinitzea.
- II. Arestian deskribatutako Europaren integrazioaren esparruan, euskal foru-subiranotasuna aitortu eta erabat gauzatzeko prozedurak ezartzea.
- III. Jarrera horretatik abiatuta, Europaren subiranotasuna sendotzeko eta gure Batasunaren pixkanakako federalizazioa lortzeko, Euskadik Europar Batasuneko organoetan parte hartuz.
- IV. Eskubide historikoen eta foru-zuzenbide zibilaren potentziala garatzea Euskadi osatzen duten lurraldeetan.

2. Nortasuna

- I. Gure herriarentzat nortasun berri bat eraikitzea, enpresak eta ekintzaileen lana funtsezko balio ekonomiko eta sozial gisa aintzatestean eta bultzatzean, gure produkzio-sistemaren eraginkortasunean, gure herrialdearen kaudimenean eta haien gizarte-babeseko sistemak eskaintzen duen aukera-berdintasunerako bermean oinarrituta. Zilegitasun osoz, harro egoteko moduko nortasuna.
- II. Oinarrizko eskubideekin dugun konpromiso negoziatzina gure beste nortasun-ikur bat bihurtzea. Ospe horrekin gure nazio-nortasunaren marka indartzea.
- III. Gure gizartearen ezaugarri den aniztasuna onartzea eta integratzea, eta dauden adostasunak balioestea eta indartzea, gure nazio-nortasuna integratzeko eta indartzeko bide gisa.
- IV. Gure berezitasun instituzionalak, linguistikoak eta kulturalak garatzea eta Europar Batasunean proiektatzea. Euskarazko kultur produktuen ekoizpena eta hedapena biziartzea eremu digitalean. Gure hizkuntzaren ofizialtasuna aldarrikatzea.
- V. Aliantza publiko-pribatuak sustatzea esparru guztietan, nortasunari eta burujabetzari buruzko gure ikuspegia eta misioa zabaltzea eta eraginkor bihurtzeko.
- VI. Herrialde markaren arloko politika nazional propioak garatzea eta aplikatzea, eleaniztasunaren, kultura zentzu zabalenaren eta diplomaziaren bidez, baita euskal selekzio ofizialen bidez ere.
- VII. Hiru administrazio-mailatan (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) banatuta dauden euskararen lurraldeen arteko harremanak sendotzea sektore-eremu guztietan.
- VIII. Diasporarekiko harremanak sendotzea. Paradiplomazia eta erakundeen arteko harremanak sustatzea, euskaldunek munduan dituzten sendotasun eta harremanetan oinarrituta, eta euskal nortasunaren zabalkundearen zein Euskadiren nazio eraikuntzan duten zeregina indartzea.

- IX. "Euskal kasuaren" azterketa, aitorten akademikoa eta zabalkundea bultzatzea, garapen soziala barne hartzen duen garapen ekonomikorako daukagun euskal eredia aldarrikatzeko, hobetzeko eta eskaintzeko.

3. Herrigintza eta elkarlana

- I. Gardentasuna gure erakundeen nortasun- eta nolakotasun-ikur bihurtzea, eta parte-hartzea eta elkarlana jotzea herritarrek gai publikoetan aktiboki entzuteko eta inplikatzeko tresnatzat.
- II. Ahalegina egitea gure erakunde publikoak arinak, hurbilak eta eraginkorrak izan daitezen. Gure gizartea bizikidetzaren eta garapen pertsonalaren eremu gisa aitortzea bultzatzea.
- III. Sektore publikoaren burokraziari eta antolamenduari buruzko hausnarketa sakona bultzatzea, haren eraginkortasuna eta efizientzia optimizatzeko, eta kalitatezko zerbitzu publikoaren konpromisoa indartzea eta komunitatea arlo publikotik ehuntzea.
- IV. Ekintza publikoan I+G+B kontzeptua txertatzea. Euskal erakunde publikoen sarean epe ertain eta luzeko plangintza estrategikorako gaitasunak garatzea herrialdearen lehentasunetan, partaidetza, koordinazio eta lurralde-oreka egokiarekin, bai eta herritarren legitimitatearekin ere.
- V. Euskal gizarteak gai publikoen politketan parte har dezan laguntzeko mekanismo teknikoak eta tresna digitalak garatzea, herri-kontsultarako dinamikak eta erreferendumak barne.
- VI. Ekonomia Itunak eta Ekonomia Hitzarmenak (ituna eta alde bikotasuna) herrigintzarako egiten dugun proposamenerako ardatz gisa dituzten bertuteak hedatzearen alde egitea. Horiek Estatuan eta, bereziki, Nazioartean zabaltzen ahalegintzea. Federalismo fiskalaren adibide gisa bultzatzea, Europako etorkizuneko ogasuna bultzatzeko.
- VII. Udal-zuzenbide propio baten garapena bultzatzea, toki-eskumeneko gaiei buruz zuzenean parte hartzeko eta kontsultak egiteko mekanismoak barne.
- VIII. Memoria demokratikoaren politikak indartzea, arreta berezia jarriz memoria berreskuratzeari eta ETAren eta Estatuaren terrorismoaren biktimei arreta emateari. Desberdina gorrotatzea eta gizatasuna galtzea gure hitz eta ekintzen bidez baztertzea eta txarrestea. Elkarrekiko errespetua indartzea eta demokrazia batean areriorik ez dagoela dioen printzipioa defendatzea. Aurkari politikoak baino ez dira, eta horiekin herrialdearen onurarako akordioak lortzen saiatu behar da.
- IX. Elkarrizketa sustatzea eta polarizazioari uko egitea esku-hartze politikorako tresna gisa, eta populismoari aurre egitea birsorkuntza demokratikorako proposamenen bidez, espazio publikoan buloak zigortu eta desagerrarazteko.

4. Zientzia eta ezagutza

- I. Eskura dagoen gizarte-ezagutza identifikatzea eta erabakiak hartzeko elkarrizketa bidezko prozesuetan eraginkortasunez parte hartu araztea.
- II. Berrikuntza, etengabeko hobekuntza eta prestakuntza ekonomia zirkularraren paradigmatarako beharrezko eraldaketaren bektore nagusi bihurtzea.
- III. Hezkuntza-sistemaren eta produkzio-sistemaren arteko lotura hobetzea, lanbide-profilak aurreratzeko eta prestatzeko gai izango den prestakuntza prediktiboa sustatzeko, gaitasunetan eta kompetentzietan oinarrituta.
- IV. Euskal unibertsitate sistemaren aldeko apustu garbia egitea, euskal gizartearen eragile nagusi eta estrategiko gisa, berrikuntza, lurralde-egituraketa, gizarte-garapen eta gizarte-kohesiorako eragile gisa, bai eta eremu tekniko eta profesionaletan euskara sustatzeko eragile gisa ere. Unibertsitate publikoaren zeregin sozialek beharrezko baliabideak ematea eskatzen dute, besteak beste, soldata eta lan baldintza erakargarriak eta lehiakorak, azken urteotan ikusten ari den talentuaren galera saihestuz. Euskadik unibertsitate-politika propioa garatu behar du, herrialdearen helburu estrategikoekin bat datorrena.
- V. Beste herrialde batzuekiko truke-mekanismoak indartzea eta euskal gizartea talentua erakartzeko eta berreskuratzeko gune bihurtzea.
- VI. Adimen artifizialaren garapen kontrolatua eta fidagarria bultzatzen duten ekintza guztietan laguntzea. Euskadi liderra izan behar da Adimen Artifizialaren Europako Legearen ezarpenean, EBko arauak eta estandarrak garatzen lagunduz, eta IA enpresa- eta gizarte-ekosistema baten garapena indartuko duen euskal eremuko "sandbox" bat sortzeko aukera baloratu.
- VII. Zientzia eta teknologia aldarrikatzea, trantsizio justua garatzeko eta ideologiak esparru horretan duen zeregina mugatzeko hartuko ditugun irtenbideen oinarri gisa.

5. Gizartearen eraldaketa

- I. Gizarte-justiziaren garapenean sakontzea, pobrezia- eta bazterkeria-arriskuak murrizteko.
- II. Oinarrizko eskubideak babesteko tresnen baliozkotasuna aldarrikatzea, nazioz gaindiko botere pribatuko egituren aurka eta agintari publikoen gehiegikerien aurka babesteko tresna gisa.
- III. Berdintasuna aukera-berdintasunaren eta oinarrizko eskubideen errespetuaren zerbitzura dagoen tresna izateaz gain, lehiakortasun-faktore ere badela aitortzea.
- IV. Interes pribatuaren eta publikoaren arteko tentsioari buruzko hausnarketa sakona bultzatzea, sektore pribatuak bere jardueraren dimentsio soziala erantzukizun sozial korporatiboaren ariketa aktibo baten bidez adieraz dezan.
- V. Sare sozialetan trafikoak gobernatzen dituzten algoritmoen gardentasuna bultzatzea, eta zibersegurtasunean eta datu pertsonalen babesari buruzko Europako altxorraren erabateko ezarpenean sakontzea.
- VI. Mendekotasun digitalei eta horiek osasun mentalean, prozesu kognitiboetan eta sozializazioa gertatzen den agertokietan dituzten ondorioei aurre egitea.

6. Erakundeen jarduna eta aliantza politikoak

- I. Gure legebiltzar eta batzar nagusien ahalmen legegilea birdefinitzea, helburu politiko komunak eta garatzeko eta eguneratzeko dauden helburu berriak koordinatuz.
- II. Estatuarekiko itun berriari buruzko barne-akordio bat lortzea, gure nazio-aitorpena eta aldebikotasuna jasoko dituen, leialtasun instituzionalaren eta akordioa betetzearen berme gisa.
- III. Eskubide historikoen baliozkotasun juridikoa zabaltzea, gure esparru juridikoa barneko, estatuko eta Europako esparru instituzionalean txertatzeko tresna gisa.
- IV. Ekintza instituzionalean sakontzea Estatuan eta Europan, gure jarrerak behar bezala ordezkatuta eta aitortuta egon daitezen ahots, erabakitzeko eskubide eta nortasun propioarekin. Makroeskualde Atlantikoa eta Europa mailan nazio konstituzionalen eta elkartutako eskualdeen onarpenera bultzatzea.
- V. Euskal nazioaren ondare europarra defendatu eta bultzatzea. Autodeterminazio-eskubidea gauzatzeari buruzko gure proposamena sendotzea Europar Batasunaren esparruan, EAJ-PNVk proposatu zuen Europako Argitasun Legean jasotzen diren proposamenak oinarri hartuta.
- VI. Estaturik gabeko nazioetako eurodiputatuekin horri buruz adostutako erregelamendu-proposamen artikulatua garatzea.
- VII. Batasunaren itunak aldatzeko beharra defendatu eta bultzatzea, Europaren etorkizunerako konferentziaren ondorioak oinarri hartuta. (COFUE)
- VIII. Euskara nazioartean babestua izan dadin bultzatzea, Euskal Herriaren eta gizadi osoaren hizkuntza gutxitu eta hizkuntza-ondare den aldetik.
- IX. Aliantzak lantzea Europan eta nazioartean, Europako Alderdi Demokrataren bazkide fundatzaile izateak eskaintzen dizkigun aukeren bidez.
- X. Politika- eta erakunde-mailan bazkide berriak eta lankidetzak aukerak identifikatzea, nazioari, burujabetzari eta nortasunari buruz egiten ditugun proposamenei atxikimenduak gehitzeko eta Europan haien berri emateko.